

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 9/2025 Erabakia, urtarrilaren 14koa. Onespena ematea Kontseiluaren urtarrilaren 7ko 3/2025 Erabakian egindako hutsa zuzentzeari

Arabako Foru Aldundiaren Gobernu, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian jasorikoarekin bat etorri, urtarrilaren 7ko 3/2025 Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakia eman zen, zeinaren bidez Mario García García Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargurako izendatzen baita.

Erabaki horretan huts materiala antzeman da gaztelaniazko bertsioan, eta zuzendu egin behar da, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 109.2 artikuluan xedatutakoarekin.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Zuzentzea urtarrilaren 7ko Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2025 Erabakiaren gaztelaniazko bertsioan bigarren puntuan antzemandako hutsa, honela:

Honako hau dioen lekuan:

“Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2024ko urtarrilaren 9tik aurrera.”

Beste hau esan behar du:

“Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2025eko urtarrilaren 9tik aurrera.”

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 14a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR